

Park4SUMPen emaitza nagusiak

- 1 16 hirik beren aparkaleku politikak hobetuko dituzte eta aparkalekua kudeatzeko 50 praktika on garatuko dituzte proba gisa.
- 2 14 gobernuk ikasiko dute nola maila altuko lege eta erregulazioek errazten edo zailtzen duten aparkalekuaren kudeaketa berritzaile eta eraginkorra beren hirietan.
- 3 Kanpoko hiri jarraitzaileek beren gaitasunak hobetuko dituzte eta aparkaleku eta mugikortasun politiken integrazioa handituko dute, eta aparkalekua kudeatzeko 300 modu desberdin garatuko dituzte.
- 4 Aparkalekuen politikak eta kudeaketa ikuskatzeko tresna bat garatuko da, PARKPAD, eta esperientzia pilotu gisa erabiliko da 16 Park4SUMP hirietan.
- 5 PARKPAD ikuskatzeak egingo dira hiri bazkide guztietan eta (partzuergoaz kanpoko) beste 10 hiritan.
- 6 Park4SUMP prestakuntza programa pertsonalizatua (prestakuntzako gertaera eta webinarrak) tokiko, eskualdetako eta nazio mailako agintarientzat 16 herrialdetan.

Park4SUMP neurri lokalak:

- ▶ Aparkaleku erregulatua hedatu eta eguneratzea Mugikortasun Planean definitutako superetxadien arabera.
- ▶ Enpresetan zein etxebizitzetan egun autoentzat eta bizikletentzat legez eskatzen diren aparkatzeko lekuen kopuruen aldaketa aztertzea.
- ▶ Erregulatutako aparkalekuen diru sarrerak garraio modu jasangarriak sustatzera bideratzeako aukera aztertzea.

Hartu parte Park4SUMPen

Park4SUMP proiektuak Europa osoko hiriei luzatuko die gonbidapena Aparkalekuen Politika eta Kudeaketa Nazionala izeneko prestaketa jardueretan, webinarretan eta PARKPAD ikuskatzaileen prestakuntza gertaeretan parte hartzeko.

Jarduera horietan egon nahi baduzu, bisitatu gure webgunea, jarraitu Twitter eta Facebooken edo egin bat gure LinkedIn taldearekin.

Kontaktua

Park4SUMP proiektuari buruzko informazio gehiagorako, hitz egin proiektuaren koordinatzaile den Mobiel21ekin:



Patrick Auwerx
patrick.auwerx@mobi21.be

Park4SUMP proiektua 2018ko irailean hasi zen eta 2022ko martxora arte iraungo du.



www.Park4SUMP.eu

[@civitas_P4S](https://twitter.com/civitas_P4S) [f Civitas Park4SUMP](https://facebook.com/civitas_P4S) [in Park4SUMP](https://linkedin.com/company/civitas_P4S)

Liburuxka honetako edukiek erantzukizun bakarra egileena da. Ez du zertan derrigorrez Europar Batasunaren iritzia islatu. Agentziak eta Europar Batzordeak ez dute ardurarik hemen dagoen informazioaz egin daitekeen erabileraren inguruan.



Proiektuak Europar Batasunaren Horizon 2020 ikerketa eta berrikuntza programaren diru laguntza jaso du, 769072 akordioaren pean.

Park4SUMP

Aparkalekuen kudeaketak zure hiriaren irudian eragingo dituen aldaketak



Park4SUMP Europar Batasunak diruz lagundutako Horizon 2020 proiektu bat da, hirietako mugikortasun jasangarriko planen baitan aparkalekuen kudeaketako politikak nola molda daitezkeen eta aparkatzeko konponbide berritzaile eta eraginkorrak nola garatzen diren erakusten duena.

Zergatik Park4SUMP?

Aparkatzeko konponbide berritzaileak Hiriko Mugikortasun Plan Jasangarriaren parte bihur daitezke, hiriaren ikuspegia eta helburuak betetzen laguntzeko.

Ikasi gure hirietatik eta nazioarteko adituetatik nola:

- ▶ Mugitu kudeaketan oinarritutako aparkaleku politikatik ikuspegi estrategikoagora.
- ▶ Aplikatu aparkatzeko konponbide berritzaile eta merkeak.
- ▶ Berrerabili aparkalekuaren diru sarrerak mugikortasun jasangarriko ekintzetan.
- ▶ Handitu onarpen politiko eta publikoa.
- ▶ Askatu espazio publikoa aparkatzearen presiotik, hiriaren bizi kalitatea hobetzeko.
- ▶ Murriztu auto bidezko bidaiak, aparkalekuan aldaketak eraginda, garraio sistema jasangarriagoa izan dadin.

Egin lan gurekin, maila altuko erabaki politikoek aparkalekuaren kudeaketako konponbide berritzaile eta eraginkorrak ahalbidetu ditzaten.



Park4SUMP hiriak

Europako 16 hirik, 6 bazkide teknikok eta 3 ikerketa eta aparkalekuen erakundek bat egin dute modu adimentsuan eta estrategikoki kudeatutako aparkalekuek hiriko mugikortasun jasangarrian duten onura frogatu eta ezagutarazteko.

- ▶ Hiri gidariak
- ▶ Bazkide teknikok
- ▶ Hiri ikasleak
- ▶ Aholku batzordea

Park4SUMP metodologia

Gure proiektuaren metodologiari esker, aholku eta laguntza pertsonalizatua sortuko da Europako hirientzako.

Honako gaien arabera diseinatu da:

- ▶ Kontzientzia piztea eta onarpena handitzea eragileen artean, 'aparkatze egokiak' hiriei nola laguntzen dien zabal dezaten.
- ▶ Aparkatzeko politika erreaktiboetatik politika estrategikoetara igarotzea.
- ▶ Aparkalekuen kudeaketa. Mugikortasun Planean integratzea.
- ▶ Halako politikak eratzeko zailtasunak dituzten hirien gaitasunak eraikitzea.
- ▶ Aparkalekuen kudeaketan berrikuntza sustatzea.
- ▶ Portaera aldaketak laguntzea eta aldi berean etekinak sortzea mugikortasun jasangarriko konponbideetan erabiltzeko.
- ▶ Hirietan berriak diren aparkatze neurriak garatzea eta adibide onetatik ikastea, hirien artean politiken transferentziak sortzeko.

PARKPAD tresna

Hiri aparkalekuen kudeaketan joko arauak alda ditzakeen tresna berria garatuko dugu, PARKPAD izenekoa. Hiriei lagunduko die beren aparkatze politikak ikuskatzen eta aparkalekuen kudeaketa konfiguratzeko, eta hobekuntza horien inguruko kontsentsuak lortzen Mugikortasun Planean aparkalekuen kudeaketa integratzeko ekintza plan baten bidez. Proiektu honetan, aurreko beste europar proiektu batzuetan frogatuta geratu diren ebaluazio teknikak eta hurbilketak erabiliko dira, adibidez BYPAD, ADVANCE eta QUEST, tresna berri hau garatzeko.

PARKPADen adituak diren ikuskatzaile independenteak prestatuko dira. Ikuskatzailearen zereginak izango dira:

- ▶ Hiriko mugikortasun orokorraren eta aparkatzeko tokien egoeraren informazioa biltzea.
- ▶ 'Interesatuen taldea' sortzea (hautatutako politikariak, hiriko teknikariak, garraiobideen erabiltzaileak, dendariak, etab.).
- ▶ Tokian tokiko topaketak egitea kontsentsuak erdiesteko hiriaren aparkatze politiken eta praktiken uneko egoeraren inguruan.

Aurreko guztiak Aparkatze Politiken Kalitatearen Txostena sortzeko oinarria izango da. Hasierako puntu horretatik abiatuta, interesatuen taldeak eta ikuskatzaileak, elkarlanean, PARKPAD Ekintza Plan adostua sortuko dute, hiriaren Mugikortasun Planaren atal modura. Ekintza Planak aparkalekuak kudeatzeko neurri berritzaile, eraginkor eta onargarrien pakete bat eskainiko du.

